

**BI EUSKALTZAIN
OHOREZKO BERRIAK**

BI EUSKALTZAIN OHOREZKO BERRI

Egoitza, Bilbo, 1995-06-30

*Jean Haritschelhar,
euskaltzaiburua*

Hezkuntza Sailburu ordea, Eneko Oregi jauna,
Andereak,
Jaunak. Agur.

1. ARABAR EUSKALTZAIN OHOREZKOA

PEDRO PUJANA AGIRREGABIRIA, 1915.eko ekainaren 29an Arabako Oletan sortua.

Ikasketak Gasteizko seminarioan.

Meza berria: 1944.eko uztailaren 2an Muxika-Oletako Andra Maria parrokian eman zuen.

Apaiz karguak: Eskoriatzan, Angiozarren, Morgan eta Gautegiz Arteagan izan ditu.

Euskaltzain urgazle 1970.eko abenduaren 20tik.

1970ean, Bilbon, *Euskal Aditza bizkaieraz/Flexiones del verbo vasco vizcaino* liburu argitaratu zuen. 1972an Bilbon argitaratu zuen *Aitortu zer dela eta?* 1973an, Bilbon bertan, baita ere aurrekoa bezala, D. Borobioren laguntzaz, *Bateoa* izeneko lana argitaratu zuen.

Beste lan batzuk: *Ahalezko lan batzuk* 1979, *Oletako euskal aditza / El verbo vasco de Oleta, Flexiones Hika del valle de Leintz (Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate), Del Valle de Anguiozar Bergara, de Zeanuri y de la zona de Vitoria*, Vitoria 1979, Diputación Foral de Alava, Consejo de Cultura. *Oletako euskal aditza, hikako jokabidea*, Vitoria 1977.

Mikel Zarateri lagundu zion *Euskara batua eta euskalkiak* Euskaltziandiaren Ber-garan egindako VIII. Biltzarrean.

Pedro Pujana izan da Bizkaiko Forua euskaratu duena eta baita ere Gernikako Baz-tzar Etxeko areto nagusian dauden esaldiak ere.

* * *

Pedro Pujana Agirregabiria, nacido en Olaeta (Alava) el 22 de junio de 1915.

Realizó sus estudios en el Seminario de Vitoria, celebrando su primera misa en la parroquia de Santa María de Olaeta de Mugica el 2 de julio de 1944.

Ha tenido cargos eclesiásticos en: Eskoriatza, Angiozar, Morga, Gautegiz de Artega, hallándose en este momento en situación de jubilado.

Obras más importantes: *Euskal Aditza bizkaieraz / Flexiones del vasco vizcaíno* Bilbao 1970, *Aitortu zer dela eta*, la traducción de la obra de D. Brobio Bilbao 1972, *Bateoa*, también en colaboración con D. Borobio Bilbao 1973, *Ahalezko aditz joakoak/Flexiones verbales en potencial* 1979, *Oletako euskal aditza/Verbo vasco de Olaeta (Alava)*, *Flexiones hika del valle de Lenitz (Gatzaga/Salinas, Eskoriatza, Aretxabaleta, y Arrasate/Mondragón)*, *del valle de Anguiozar Bergara, de Ceanuri, de la zona de Vitoria*, Diputación Foral de Alava, Consejo de Cultura, Vitoria 1979, *Oletako euskal aditza hikako deklinabidea*, Vitoria 1979.

Colaboró en la ponencia presentada por Mikel Zarate *Euskara batua eta euskalkiak/Euskera unificado y dialectos*, con motivo del VIII Congreso de Euskaltzaindia, Bergara 1978.

Ha realizado la traducción al euskara del *Fuero de Bizkaia*, siendo suyas también las frases euskéricas de la sala de plenos de la Casa de Juntas de Gernika.

2. JOAN COROMINES i VIGNEAUX

Joan Coromines i Vigneaux Bartzelonan sortu zen 1905an. Pere Coromines i Montanya (1870-1939) idazle, politikari eta ekonomistaren semea da.

Goi-ikasketak Bartzelonako Unibertsitatean egin zituen, halaber Estudis Universitaris Catalans eta Fundació Bernat Metge erakundeetan, Joaquim Balcells, Nicolau d'Olwer eta Carles Ribarekin, besteak beste. Gero, 1927an, Montpellier-en izan zen, Maurice Grammont eta Georges Millardet irakasle zituela, eta Madrilén, 1928an, Ramón Menéndez Pidal eta Américo Castrorekin. Hurrengo urtean, 1929an, Zürich-en egon zen, Louis Gauchat, Arnald Steiger eta Jakob Jud-en eskoletara eta mintegietara joateko, eta 1930ean Parisen, Oscar Bloch, Mario Roques eta Antoine Meillet-enetara. Madrilén lortu zuen doktore maila, *Vocabulari aranès* bere lanaz, 1931an.

Pompeu Fabraren eskutik sartu zen 1930ean Institut d'Estudis Catalans delakoaren hiztegi gintza sailean eta gerra bukatu arte (1939) irakatsi zuen Bartzelonako Unibertsitatean.

Erbestaldiko lehen bizitokia Paris izan zuen. Gero Cuyoko Unibertsitatean, Mendozan, irakatsi zuen, eta ondoren Chicagon, zaharsaritu arte. Bartzelonan bizi da geroztik.

Institut d'Estudis Catalanseko kide da Joan Coromines 1950az gero. Katalana ez ezik, okzitaniera eta gaztelania ezagutzen ditu oso ongi, hizkuntzaren historiaren aldetik eta dialektologiarenetik, eta erromanista bikaina da. Hiztegi gintza, etimologia eta onomastika alorrak landu ditu, batez ere.

Gutziz ugariak dira haren lanetan euskarari buruz egin dituen azterketak, bere bi hiztegieta, batez ere, baina gure hizkuntzaren gainean burutu dituen aurkikundeak bestelako artikulua eta liburuetan ere anitz dira. Emaitza horien aitortpena Mitxelenak egin zuen lehendabizikoz, gaztelenaiazko hiztegiak argitaratu zuen artikuluan, *BAP* 10, 1954. 373-378, eta geroztik beti eduki da kontuan Corominas jaunaren ekarpen aberatsa euskarari artean.

Bibliografia laburra

- *Diccionario crítico etimológico de la lengua castellana* (1954-1957. Gero, José Antonio Pascualekin batera, *Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico* (1980-1991).
- *Diccionari etimològic i complementari de la llengua catalana* (1980-1991).
- *Estudis de toponímia catalana* (1965-1970).
- *Tópica hespérica* (1972).
- *Onomasticon Cataloniae* (1992-).
- *El que s'ha de saber sobre la llengua catalana* (1954).
- *Lleures i converses d'un filòleg* (1971).
- “Hurgando en los nombres de parentesco” (1970).
- “De toponimia vasca y vasco-románica en los Bajos-Pirineos” (1972).
- “Dos notas epigráficas” (1973).

PEDRO PUJANA AGIRREGABIRIA EUSKALTZAIN OHOREZKOA

Egoitza, Bilbo, 1995-06-30

Pedro Pujana ()*

Adiskideok:

Arabako leku baten, Aramaioko elizate edo auzo baten, Oletan, egin izan dan eta gaur ere egiten dan berbakuntza izango da, zuen baimenez, ekitaldi honetara ekarriko dodana. Oletako euskera, herriko mailan egiten dana, apur bat landua eta txukundua.

Lehenengoz, hauxe adierazo gura dausuet: eskerrik gartsuenak emoten dautsuedazala egin daustazuen *ohore haundi* honegaitik. Amesetan ere ez jatan bururatuko honelango izendapenik. Nire eskerrik bihotzetikoena, beraz, zuon guztiontzat.

Aurrera egin baino lehen, zerbait zehaztu gura neuke. Nik ez daukadala euskeraren arloan horrenbesteko merezimendurik. Ez neban nik inongo ikastetxetan, ez unibertsitatetan euskararik ikasi. Gehien-gehien ere, "Basarteko Unibertsitatean", Juan Antonio Mogel, eibartar idazle ospetsuak esango leukenez, hau da, baserrian. Nik ez daukat jakite horretan ezertariko titulurik, horrezegaitik. Gure gaztearoan ez genduan horretarako aukerarik izan. Hau dala eta, euskeraren barrutian nahiko ez-ikasiaz naz. Ez dinot hau neure buruari harrika egitearren, ezta guzurrezko apaltasunak, hobeto, apalkeriak eraginda, ez, bene-benetan baino. Nire bizitzaldian zehar ikasi dodan euskera apurra, neure jaiotetxean eta herrian ikasi nebanaz gain, neuk neuretara ahalegin eta ahalegin eginda neureganatu izan dot. Gehiagorik ez. Ez titulurik, ez ezer.

Berbaldi honetan zer esango ete dautsuedan eta gauzatxo bi, besterik ez. Eta hau ez zuoi, Euskaltzaindiko jakintsuoi, ezer irakasteko asmoz —nik zuoi zer irakatsi?—, zerbait agertzeko era zeuok emoten daustazuelako baino.

Gauzatxo bi: nire bizitzaldi luze honetan —atzo bertan egin nituan larogei urte astun— euskera dala eta izan ditudan bizikizunak zeintzuk izan diran edo egin dodan bidaldia zein izan dan labur-labur azaldu, lehenengo, eta gure egunotan bizkaierazko eta gipuzkoerazko aditza dala eta, zerbait kezkatu eta urduri nagoela adierazo, bigarren. Guzti hau berba bitan.

Euskera ikasi, txiki-txikitan, ume-ume nintzala, ikasi neban. Eta nire lehenengo maixua euskera ikasteko neure aita izan nebala esan behar dausuet. Berau izan zan euskera irakurten eta idazten ikusi neban aurrengo gizona mundu honetan. Oraindino ikusten nago gure aita, mutiko txikia nintzala —etxeko txikiena neu izan nintzan eta— gure eskaratzeko sutondoan, bertako sugarraren argitara, liburu lodi xamar bat eskuetan

(*) Hitzaldia Patxi Uribarrenek, euskaltzain urgazleak, irakurri du.

ebala —Zaldibiko Lardizabal idazlearen *Testamentu Zarreko eta Berriko Kontaira* eritzana—, irakurten eta irakurten, askotan ahots zoliz, eskaratzean gengozan guztiok entzun gengian. Zaharraren zaharraz eta erabiliaren erabiliaraz, orriak loituta eta orituta eukazan liburua. Negu-aldian, batez ere, irakurten eban, gaba luzea izaten dan horretan.

Eta gero bertso-paperak. Gure aita bertsozale eta kantazale amorratua izan zan. Gure etxean bertso-paperak ostikopean ikusten genduzan askotan, eta inoiz katuak euraraz olgetan eta olgetan ere bai. Bertso-paperak eta bertso-paperak. Irakurri eta entzun. Entzun eta kantau. Euskeraren etenbagako entzunbide eta ikasbide izan ziran bertsoak gurean, besteak beste.

Irakurri eta idatzi euskeraz, esan dot. Idatzi ere bai. Ez askorik. Euskaldunok ez ei gara irakurzale eta idatz-zale, dinoenez. Entzunzale bai, ostera. Orduak eta orduak egingo ei gendukez bertsolari on bati entzuten. Eta pozez gainezka, gainera. Halan ere, gure aitak irakurri, eta euskeraz, apur bat baino gehitxoago egiten ebala autor egin dot. Eta idatzi zerbait. Etxetik kanpora arrea bi eukazan, eta noz-edo-noz kartatxoren bat idazten eutsen. Eskutitzaren hasieran hauxe idazten eban beti letra haunditan: GEURE EUSKERA EDERRIEN. Eta gero dana euskeraz idatzi.

Herriko giroa euskera huts-hutsezkoa izan genduan guztiontzat. Aramaiotik noizean behin etorten ziran guardia zibilak izan ezik, han ez eban inork gaztelera hitzik egiten. Halan izanda ere, herriko eskolan ez genduan berbatxo bat euskeraz ikasi. Ez irakurten, ez idazten. Ezer ez! Gaztelera hutsez eskolatu ginduezan. Eta hori, nire lehenengo urteetan eskola-maixua euskalduna izan genduala. Ikastaldietatik kanpora euskeraz berba egiten euskun, bai berak eta bai beraren familiak. Eskola-barruan, barriz, beti gaztelera eta gaztelera hutsez. Eskerrak kristinau-dotrinea euskeraz ikasi genduen! Nik neure bizitzaldian irakurri neban euskerazko lehenengo liburuxoa kristinau-ikasbidea izan zan. Elizan ere berbaldiak beti euskeraz. Kantuak latineraz, orduan ohitura zanez, eta euskeraz, bietara.

Gasteizko seminarioa joan nintzanean, izen haundiko maixu bikain bat aurkitu neban euskeraren arloan: Manuel Lekuona jauna. Berak biztu eta sutu eustan nire bihotzearan etxetik neroan euskerarenganako grina, egundo gehiago ez amatauko, ez gitxituko ez jatana. Nire barruan ez-eze, ikasketetan kide nituan hainbeste eta hainbeste gazterengan ere bai. Hau ez eban egiten gure maixu honek hitzaldi sutsu-gartsu-luzeak euskeraren alde eginez. Ez, ez. Goxo-goxo, guztiz goxo eta bigun-bigun lan egitera eta euskeraz idaztera bultz eginda baino. Irakasle atsegin-atsegina izan genduan D. Manuel eta euskera zala eta, jakitun-jakituna. Haregaz emoten genduan denporaldia minututxo bat bailitzan igaroten jakun. Zorigaiztoko gerrate galgarri ha uste-uste bagarik etorri jakun, bai?, eta horra gure ames eta asmo guztiak edo gehienak gorengo hodeietan galdu.

1950-garren urtean, Eskoriatzan bizi nintzala, jesuiten artera joan nintzan. Garai haretan jesuitak Burgosko Oñan euken euren ikastetxe nagusia. Hantxe egin nituan nik hiru urte. Zorionez, egin ere. Patxi Altuna, oraingo euskaltzaina, Salamankara joanik zan bere ikasketak biribiltzeko asmoz. Oñako ikasle nagusien artean taldetxo bat eukan euskera irakasten eutsana, eta Salamankara joakeran, neuk hartu neban berak Oñan itxi eban euskal zuzia.

Eskoriatzan bizi nintzala, ez neban nik astirik, ez libururik euskera ikasteko, eta horra uste-uste bagarik Oñako jesuiten artean biak aurkitu. Talde harek aditza azaltzeko

eskatu eustan, gipuzkoerazko aditza, guztiak giputzak ziran eta. Aditza neuk ere ez nekian besteai irakasteko beste. Baiña Oñako jesuiten liburutegi aberatsean euskerari buruzko liburu oso onak eta ugari aurkitu nituan. Ha izan zan, ha, nire poza eta gozamina!! Hantxe asetu ahal izan neban aspalditik nekarren euskal egarria. Non eta Burgos-en! Neuk neuretara lan eginda, jakina. Aditza aztertzeo eta bertan sakontzeo, beste liburu baliotsu batzuen artean, Luis Eleizalderen *Conjugación vasca sintética* izeneko liburua guztiz argigarri eta mesedegarri izan neban. Oñako jesuiten ikastetxe haretan lortu neban neurri medar baten jakintza hori. Gero urte bitan jardun neban talde euskaltzale hari euskera irakasten, aditza eta beste.

Hurrengo, urte batzuk joanik izanda gero, Oñako ikastetxe haretan aditza ikasten, lantzen eta aztertzen egin neban jardunaldiaren frutu, liburu bi argitaratu ahal izan nituan: bata, 1970-garren urtean, Morgan bizi nintzala, bizkaierazko aditzaren zukako jardunbidea kaleratuz, eta bigarrena, 1979-garren urtean, Oleta, neure herriko aditza oso osorik, zuka eta hika, aztertuz. Ez dira liburu lodiak. Halan ere, ogei urteko edo ekina eta ahalegina, gutxi gora behera, euren orrietan daroetzela autor banengi, ez dot uste guztizko larregikeria izango litzatekenik. Ez liburu bata, ez bestea, ezin izango neukean biribildu Oñako ikastaldi ha izan ez balitz. Horra zergaitik autor dagidan Oñako hiru urte hareek euskeraren arloan guztiz onuragarri izan nituala.

Aitatu ditudan liburu biotaz hainbat jakingarri.

1970-garren urtean agertu zan *Euskal aditza-bizkaiera* liburua, esan dodanez. Urte bi lehenago, 1968-garrenean, Isidor Baztarrika beneditarrak (G.B.) aditza zala eta liburu bat argitara ekarri eban. Beronen izena hauxe: *aditza. Método nor-nori-nork o el secreto del verbo vasco* (Lazkaoko beneditarrak, 1968). Liburu beronen hitzaurrean honantxe dino egileak: “Lan ontan euskal aditza bere barnetik aztertzen saiatu naiz. Bere estruktura, jokabide eta tankerak billatzen. Eta atera dutana emen eskeintzen dizut. Aditza euskal metoduz azaldu nai nizuke, ez erdal metoduz. Aditzaren oñari eta ardatz bezela NOR-NORI-NORK izkiak artzen ditut. Metodu oni NOR-NORI-NORK metodu ederki deritzaioko”.

Begi-zorrotz irakurri eta aztertu neban liburua. Eta baliagarria iruditu jatan aditza azaltzeko eta irakasteko.

Bizkaierazko aditza zala eta, liburuxka bat prestatzen niarduan ezkerro, aditza azaltzeko irakaspide edo metodu horixe erabiltea guztiz ondo etorriko litzakidakela bururatu jatan. Gaur euskaltzain dogun Patxi Altunak ere bere *Euskal aditza-Batua Baturakoa* liburuan (Bilbo, 1971), Isidor Baztarrikaren antzera hitz dagisku: “Hiru zutabe hauen gainean eraikia duzu, esaterako, euskal aditza: NOR zutabea, NORI zutabea, NORK zutabea” (11 orr.).

Ondorenez, hauxe:

Zutabe baktxaren inguruan berari egokiozan adizkiak sailkatuz, bizkaierazko aditz guztia, iragangaitz zein iragankor, laguntzaile zein sintetiko, azaltzen saiatu nintzan, Isidor Baztarrikaren irakaspidea berari ezarririk eta egokiturik.

Geroko urteetan zehar irakaspide berau bazter guztietara edo gehienetara zabaldu zan, Euskaltzaindiak berak ere onartzen ebala.

Guzti hau dala eta, aditzaren NOR-NORI-NORK irakasaren sortzailatzat Isidor Baztarrika beneditarra iragar ete daiteke? Berak bere liburuari ezarri eutsan izenburua-

ren eta hitzaurrean dinoaren arabera, baietz dirudi, hau da, 1968garren urtearen aurretik beste inork ez ebalira irakaspide edo metodu hori liburu baten argitara ekarri, Isidor Bazterrika bera izan zala lehenengoa. Ni-neu ere horretan nago, nik dakidala. Hitzak berak asmatu zituan ala ez, ez dakit. Baina hitz horreetaz baliaturik, aditza irakasteko bide edo era barri hori aditzaren irakaskuntzara ekarri ebana Isidor Bazterrika izan zala esango neuke. Egia zordun gaiakoz, ezta? Egia horixe da, ba, nire ustez, neu oker ezpago.

1979 garren urtean agertu zan *Oletako euskal aditza* izentzat daroan liburari buruz ere, berbatxo bi.

Endrike Knörr euskaltzainak bidea errezturik etorri zan plazara liburu hau, Arabako Diputazioak lagunduz eta Alfontso Irigoien euskaltzainak zuzenketa batzuk ezarritz.

Niretzat gogokoen eta begikoen dodan euskal egintza hauxe da. Oletan, neure herrian, Arabako bazter baten entzun izan dan eta gaur ere entzuten dan aditzaren azterketa, zukateta hika, dalako. Bide batez, Aramaioko leku horretan erabili ohi diran adizkeren argibidea eta lekukotasuna hortxe gelditzen dira etorkizunerako.

Oletako aditz horrek badauko aitagarririk eta ohargarririk. Hikako jokaerari gago-kiozala, aparte-aparteko adizkiak darabilez bertan, ez Aramaioko haranean, ez beste inon entzuten ez diran langoak. Nafarroako ez dakit zein lekutan antzekoak erabiltzen dirala, dirausku Azkue jaunak. Baina beste inongo lekutan, ez, nik dakidala, Otxandion eta ingurumarian izan ezik.

Hona argibide bat:

Bizkaierazko barrutian, hikako jokoak lehenaldian honangook ditugu: (etorri) *nin-zoan/nintzonan, hintzan/hintzanan, zoan/zonan, gintzoazan/gintzonazan, zoazan/zonazan*. Oletakoak, barriz, honetarikook: (etorri) *nintzá/mitzá, hitzá/hitzá, záz/zá, giñá/giñá, zi(r)á/zir(r)á*. Hots: lehenaldian agertzen dan -N ezaugarria galdu egiten da, eta adizki bera daukagu gizonetikiko eta emakumerekiko, azentoa indartsu jausten dala. Jokaera berau dakusgu hikako berbakera guztian, iragangaitzean era iragankorrean, laguntzaillean eta sintetikoan.

Hasieran aitatu dodan bigarren zatiari emongo dautsagu orain begirakunetxo bat. Bizkaierazko eta gipuzkoerazko aditzaren egoera dala eta, neure eritxia doakizue.

Bizkaian eta Gipuzkoan aditza sail batzuetan larri xamar ikusten dodala esango neuke, eta aditz batua ere arrisku berean aurkitu daiteke. Euskera bera dago egoera larrian, ez aditza soilik, erantzun legike norbaitek. Bai, egia da. Guk Oletan erabilten dogun esakera bat aitatu, norbaitek edo norbaitzuk “zaputzetik oratuta” itto beharrean edo erre kara jaurti aginean dauke gure euskera gaixoa. Oraingo honetan, halan ere, aditzaz dihardut.

Azkenengo bosteun urteotan zehar, gutxi gora behera, hiru aldakuntza nabarmen izan dira bizkaierazko aditzaren alorrean, eta gipuzkoerazkoan ere bai, agian, eta laugarrena bidean datorkigula emoten dau. Gaur darabilguzan NOR-NORI adizkiak hamaiseigarren mendearan azken aldera gutxienez eta hamazazpigarren lehenengo erdi aldian edo nagusitu zirala esan daiteke, Azkuek irakatsia egia izatekotan. Lehenago herrian entzuten ziran adizkera jatorrak (etorri) *dakit, kakik, dakin, dakio, dakigu* eta abar izan ei ziran, ez orain herri guztian entzuten diran ustelak, hots, (etorri) *jat, jak,*

jan jako, jaku eta abar langoak. “Solo en un rincón paradisíaco de nuestra hermosa Navarra —Azkuek dirauskunez— y en zonas limitadas de Bizkaia, como Bakio, Leimoniz y Barrika, se oyen flexiones de verbo auxiliar de indicativo en que figura el reflexivo *ki*. Doce o catorce años atrás oí hacia Etxarri-Aranaz, con una fruición que sin duda asomé al semblante, estas lindísimas flexiones: *etorri dakit* se me ha venido, *etorri dakik* se te ha venido, *etorri dakin* se te ha venido, mujer, *etorri dakio* se le ha venido, *dakigu, dakizu, dakizue, dakioe*” (*Morf. vasca*, 575. orr.-Ikus baita 638. orr.).

Garai haretan barriak ziran adizkerak, hau da (etorri) *jat, jak, jako, jaku ... gatxakoz ... zatxataz, zatxataze ... natxatzu ... natxako* eta abar, Seber Altuberen arabera, bizkaieraz idatzi eben idazlerik zaharrenak eta onenak erabili ei zituen: Kapanagak, Mogelek, A. Bartolomek, Añibarrok ... Kapanaga hamazazpigarren mendean bizi izan zanez gero, adizkera barriok ordurako herrian zabal-zabal ebizan, antza, honango aldakuntza bat aditzean ez da gabetik goizera edo urte gutxiren barruan osotzen eta. Urteak eta urteak behar horretarako (*Observaciones al tratado de Morfología Vasca*, 182. orr.).

Hamazortzigarren gizaldian beste aldaketa itzel bat etorri zan hizkuntzaren esparrura bizkaierazko eta gipuzkoerazko aditz iragangaitzean eta iragankorrean, Azkuek dakarrenez. Subjuntibozko adizkerak edo, Azkue beraren hitzak aitatzuz, “flexiones hipotéticas de subjuntivo próximo” ziranen lekuan, indikatibozkoak nagusitu ziran herriaren erabileran, hau da (etor) *banadi, bahadi, badadi, bagadiz, bazadiz, bazadize, badadiz* adizki jatorren ordez, (etorten) *banaz, bahaz, bada, bagara, bazara, bazaree, badira* iragangaitzeko aditz laguntzailean, eta (ekar) *badagit, badagik/ badagin, badagi, badagigu, badagizu, badagizue, badagie* lehenagoko adizkien lekuan, (ekarten) *badot, badok/ badon, badau, badogu, badozu, badozue, badabe* iragankorrean. Hau bizkaieraz. Eta gipuzkoeraz: (ekar) *badezat, badezak/ badezan, badeza, badezagu, badezazu, badezazute, badezate* taiuzko adizkerak baztertuz, (ekarten) *badet, badek/ baden, badu, badegu, badezu, badezute, badute* adizkiak onartu ziran.

Hemeretzigarren gizaldian zehar ere galtze nabarmena jausi zan bizkaierazko aditz sintetikora, NOR-NORI-NORK adizkietan.

Argibidez:

	Adizki zaharrak	Adizki barriak
	Hari	Hari
	Egitera: Orainaldia	
(nik gauza bat)	DAKARKOT	DAKARTSOT
(hik gauza bat)	DAKARKOK/N	DAKARTSOK/N
(harek gauza bat)	DAKARKO	DAKARTSO
(guk gauza bat)	DAKARKOGU	DAKARTSOGU
(zuk gauza bat)	DAKARKOZU	DAKARTSOZU
(zuek gauza bat)	DAKARKOZUE	DAKARTSOZUE
(hareek gauza bat)	DAKARKOE	DAKARTSOE

Egitera: Lehenaldia

(nik gauza bat)	NENKARKON	NENKARTSON
(hik gauza bat)	HENKARKON/AN	HENKARTSON/AN
(harek gauza bat)	EKARKON	EKARTSON
(guk gauza bat)	GENKARKON	GENKARTSON
(zuk gauza bat)	ZENKARKON	ZENKARTSON
(zuek gauza bat)	ZENKARKOEN	ZENKARTSOEN
(hareek gauza bat)	EKARKOEN	EKARTSOEN

Hau ere egundoko aldakuntza izan zan bizkaierazko aditzaren barrutian. Hamazor-zigarren gizaldiaren azkenerantza eta hemeretzigarren lehenengoetan idatzi eben idazle ospetsuak —Mogelek, Añibarrok ...— adizkera zaharrak dakarrez euren idazkietan, eta horregatik antxinatik etorkun tradizioa guztiz etenda gelditu zan. Badira gaur lenengo adizkiak bir-eskuratu egin behar gendukezala dinoenak, eta Euskaltzaindiak berak ere adizkera zaharrak, “forma klasikoak”, hobetsi egin dituala eta nago. Baina zelan alden-du herriaren bidetik? Hemeretzigarren mende guztian zehar burrukan eta burrukan jardun ei eben idazleak alde batetik eta herria beste aldetik, eta azkenean hogeigarren gizaldi honen hasieran idazleak herriaren bideari makurtu ei jakozan, eta harrezkero batera doakiguz. Herria irabazle orain ere!

Azkenik, bai amaituko, ez amaituko edo azkenetan daukagun hogeigarren mende honetan zehar bizkaierazko eta gipuzkoerazko aditzaren arloan beste barrikuntza nabarmen bat mamintzen daukagula emoten dau. NOR-NORK adizki txairo-txairoak arriskutan ikusten ditudala esango neuke herriari dagokionez, eta horreen lekuan NOR-NORI-NORK sailekoak herrian geroago eta gehiago zabalduz eta nagusituz doakiguzala, dirudi.

Hau da:

“Nik zu ikusi ZAITUT/ZAITUT”, “zuk ni ikusi NOZU/NAUZU” eta abar esan beharrean, “nik zuri ikusi DAUTSUT/DIZUT”, “zuk niri ikusi DAUSTAZU/DIDAZU” eta abar adizkiak jabetu dirala edo jabetzen dagozala herriaz.

Hau jazo baledi, euskal aditzaren eremura itzelezko galtzea letorkela, nik uste. Herriak darabiltzan adizkien eta idazleak, irakasleak eta Euskaltzaindiak berak irakasten daukuezan artean burruka eta burruka ikusten dogula esan ete ledi? Bizkaierazko aditza zala eta, 1970 garren urtean —hogetabost urte dira— plazazatu neban liburuan salatu neban nik zeinen oker eta oker erabilten zan aditza Bizkaiko herri batzuetan. Aldi hartan Lino Akesolo karmeldarra (G. B.) Donostian bizi zan, eta *Zeruko Argia* aldizkarian nire liburuaren kritika egikeran, zerau aditzen emoten eban: “Bizkaian aditza hondatuz eta zarpilduz bajoakun, Gipuzkoan ez zala bape hobeto ikusten”.

Aita Linok esanaren agergarri, jazoera hauxe dakarket: Morgara joan aurretik, Angiozar-en (Bergaran) bizi izan nintzan urte batzuetan. Nigaz batera Zumaiako gazte jator-jator bat bizi zan bertan, euskera guztiz errez eta dotore egiten ebana. Harek ere, baina, aditza guztiz txarki eta negargarriro. “Ikusi dizut”, “zure amari gaur goizean Bergaran ikusi diot”, eta honango esaldi traketsak eta ganorabakoak entzun eta entzun egiten neuntsazan. Eta nik berari esan eta esan:

—“Adiskide, aditza oso gaizki erabiltzen dezu”. “Ikusi dizut”, ez, “ikusi zaitut” esaten da euskeraz jator hitz egiteko. “Zure amari gaur goizean Bergaran ikusi diot”, ez, “zure ama gaur goizean Bergaran ikusi det”, baizik.

Eta berak erantzun:

—“Bai, zuk diozun bezela izango da, baina nere herrian, Zumaian, erdiak baino gehiagok horrelaxe hitz egiten degu”. Hogetamar urte inguru badira hau gertatu zala.

Azkenengo bosteun urteotatik honantza historiak irakasten dauskunez, herriaren eta irakasle-idazleen artean izan diran batak bestearen aurkako jokaeretan, herria izan da orain arte irabazle eta garaile, gorago ziurtatu dogunez. Guzti hau dala eta, hemendik urte batzuetara, berrogetamar edo ehun urtera —euskera bizi arren ere— bizkaierazko eta gipuzkoerazko aditza —eta aditz batuaz ere hauxe berau iragar daitekela dirudit— guztia bestelakoa izatea badaiteke, NOR-NORK adizkiak sail haunditan galdu egin diralako, eta horreen ordez NOR-NORI-NORK erakoak herriaz jabetu eta bertan nagusitu diralako. Ipar Euskal Herrian zein egoeratan daukagun aditza ez dakit. Hego Euskal Herriaz dihardut.

Hau neure eritxia besterik ez da. Eta, jakina, guzti hau etorkizun eta jazokizun daukagu oraindino, eta etorriko dan ala ez zigur ez dakigu, horrexegaitik. Halan ere, historian zehar gertatutakoari begira bagakioz, aldakuntza hau izan daitekela agiri-agirian dakusgu, ene ustez.

Besterik ez, adiskideok. Eskerrik asko barriro ere. Honenbestez amaitu da nire berbaldia. Berau entzuteko begiramena eta adeitasuna izan dituzuelako era, eskerrik asko!

JOAN COROMINAS I VIGNEAUX

Joan Corominas i Vigneaux nació en Barcelona en 1905. Es hijo de Pere Corominas i Montanya (1870-1939), escritor, político y economista, y de Celestina Vigneaux, pedagoga, una de las personas que introdujeron el método Montessori en Cataluña.

Hizo sus estudios universitarios en la Universidad de Barcelona, compaginándolos con los cursos recibidos en las instituciones Estudis Universitaris Catalans y Fundació Bernat Metge, con Joaquim Balcells, Nicolau d'Olwer y Carles Riba. Después, en 1927, estuvo en Montpellier para estudiar con Maurice Grammont y Georges Millardet, y en Madrid, con Ramón Menéndez Pidal y Américo Castro. En 1920-1930 residió en Zurich y París, ampliando estudios con Louis Gauchat, Arnald Steiger, Jakob Jud, Oscar Bloch, Mario Roques y Antoine Meillet. En 1931 presentó su tesis doctoral en Madrid, con el título de *Vocabulari aranès*.

Para entonces ya había iniciado su colaboración en el Institut d'Estudis Catalans, en el ámbito de la Lexicografía. Hasta 1939 enseñó en la Universidad de Barcelona.

En su exilio recaló en París, Cuyo, Mendoza (ambas en Argentina) y Chicago, en cuya Universidad se jubiló en 1967. Desde entonces vive en Calaluña.

Joan Corominas es miembro de número del Institut d'Estudis Catalans desde 1950. Corominas es un reconocido especialista de esta lengua, a cuyo conocimiento hay que añadir el de otras muchas lenguas. Sus campos preferidos de investigación han sido la lexicografía, la onomástica, la etimología y los textos antiguos.

Es importante la contribución de Corominas a los estudios vascos, principalmente a través de los dos diccionarios (del español y del catalán). También son relevantes las aportaciones al euskara de Corominas en otros libros y artículos. Puede mencionarse la amistad con vascológos, principalmente con Koldo Mitxelena, el cual dedicó su primer comentario a Corominas en 1954. Todos los lingüistas reconocen la obra vascológica de Corominas. En la carta que la Academia de la Lengua Vasca comunicaba su nombramiento su presidente decía: "Con este nombramiento Euskaltzaindia quiere rendir justicia a su persona como insigne vascológo y romanista, autor de una obra inmensa e imprescindible para el conocimiento de las lenguas de nuestro entorno".

Por su avanzada edad (90 años), el diploma del señor Corominas lo ha recogido su discípulo Xavier Terrado, profesor de la Universidad de Lleida.

BIBLIOGRAFIA

— *Diccionario crítico etimológico de la lengua castellana* (1954-1957). Juntamente con José Antonio Pascual, *Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico* (1980-1991).

- *Diccionari etimològic i complementari de la llengua catalana* (1980-1991).
- *Estudis de tiponímia catalana* (1965-1970).
- *Tópica hespérica* (1972).
- *Onomasticon Cataloniae* (1992-).
- *El que s'ha de saber sobre la llengua catalana* (1954).
- *Lleures i converses d'un filòleg* (1971).
- “Hurgando en los nombres de parentesco” (1970).
- “De toponimia vasca y vasco-románica en los Bajos-Pirineos” (1972).
- “Dos notas epigráficas” (1973).